

Biztanleriaren prestakuntza-mailaren araberako estatistika  
2021. urtea

## Nafarroako biztanleriaren prestakuntza-mailak gora egin du

**15 urtetik gorako biztanleen % 37,4k goi-mailako  
hezkuntzako prestakuntza dute**

2024ko urtarrilaren 26a

Emakumeen % 39,2k goi-mailako ikasketak dituzte; ehuneko hori gizonena baino handiagoa da (% 35,6)

Adin-taldeak kontuan hartuta, goi-mailako hezkuntzaren ehunekorik handiena 35-49 urtekoen taldearena da

### LORTUTAKO PRESTAKUNTZA-MAILA

Nafarroako 15 urteko edo gehiagoko biztanleen ehunekorik handienak (% 37,4k) lortu duen prestakuntza-maila goi-mailako hezkuntza da. Haren atzetik, Bigarren Hezkuntzako lehen etapa eta antzekoa kokatu da (% 28,0k lortu dute). Bestalde, biztanleen % 1,3 analfabetoak dira edo lehen mailako ikasketak amaitu gabe dituzte, eta % 11,3k lehen hezkuntzako prestakuntza dute. Bigarren hezkuntzako bigarren etapari dagokionez, biztanleen % 11,3k lortu dute maila hori orientazio orokorrarekin, eta % 10,6k lanbide-orientazioarekin.

Aurreko urteekin alderatuta, bigarren hezkuntzako prestakuntza-maila edo handiagoa lortu duten biztanleen ehunekoak gora egin du, eta lehen hezkuntzako titulazioa edo hortik beherakoa duten biztanleen ehunekoak, berriz, behera.

Ikasketen sailkapena Hezkuntzaren Sailkapen Nazionalera egokituta dago (lortutako mailak: CNED-A).


**2016. urtearekiko aldeak.** Azken urteotan, aldaketarik handienak goi-mailako hezkuntzan agertu dira. Goi mailako hezkuntza edo lanbide-orientazioko bigarren hezkuntzako bigarren etapa duten Nafarroako biztanleen ehunekoak gora egin du, eta gainerako mailak dituztenen ehunekoak, berriz, behera. Zehazki, goi-mailako hezkuntza duten biztanleen ehunekoa sei portzentaje-puntu igo da, eta lanbide-orientazioko bigarren hezkuntza dutenena, berriz, bi portzentaje-puntu.



Gainerako hezkuntza-mailetan, azpimarratu beharra dago biztanle analfabetoen eta lehen mailako ikasketak amaitu gabe dituztenen ehunekoak izan duen jaitsiera (% 1,3ra jaitsi da 2021ean).

### 1. GRAFIKOA

16 urteko eta gehiagoko biztanleria, lortutako prestakuntza-mailaren arabera (%) (2001-2021 urteak)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Erroldak 2001. eta 2011. urteetarako, eta Biztanleriaren prestakuntza-mailaren araberako estatistika 2016. eta 2021. urteetarako.


**Sexuaren araberako aldeak.** Nafarroan gizonek eta emakumeek lortutako prestakuntza-mailak antzekoak dira, baina emakumeek ehuneko handiagoa dute prestakuntza-mailarik handienetan eta txikienetan. Zehazki, emakumeen % 12,7k eta gizonen % 10,0k lehen hezkuntzako prestakuntza-maila dute. Goi-mailako hezkuntza, berriz, emakumeen % 39,2k eta gizonen % 35,6k lortu dute.

Gainerako hezkuntza-mailen (bigarren hezkuntzako etapen) kasuan, prestakuntza-maila hori duten gizonen ehunekoa emakumeena baino handiagoa da. Zehazki, gizonen % 29,5ek eta emakumeen % 26,6k lortu dute bigarren hezkuntzako lehen etapa. Orientazio orokorreko bigarren hezkuntzako bigarren etapa, berriz, gizonen % 11,8k eta emakumeen % 10,9k lortu dute. Azkenik, gizonen % 12,1ek eta emakumeen % 9,1ek lanbide-orientazioko bigarren hezkuntzako bigarren etapari dagokion prestakuntza-maila dute.



## 2. GRAFIKOA


16 urteko eta gehiagoko biztanleria, lortutako prestakuntza-mailaren eta sexuaren arabera (%).2021. urtea



**Adinaren araberako aldeak.** Belaunaldirik gazteenetako pertsonen 1956. urtearen aurretik jaiotakoek baino prestakuntza-maila handiagoa dute. Goi-mailako hezkuntzaren kasuan, 35-49 urteko pertsonen ehunekoa nabarmendu da. Izan ere, haien % 52,8k goi-mailako hezkuntza lortu dute. 65 urteko eta gehiagoko pertsonen kasuan, berriz, ehuneko hori % 17,9ra iritsi da. Lanbide-orientazioko bigarren hezkuntzako bigarren etaparen kasuan, azpimarratu beharra dago 16-34 urteko pertsonen % 14,8k eta 65 urteko eta gehiagoko pertsonen % 4,6k dutela prestakuntza-maila hori. Antzekoa gertatzen da orientazio orokorreko bigarren hezkuntzako bigarren etaparekin. Izan ere, 16-34 urteko pertsonen % 17,1ek eta 65 urteko eta gehiagoko pertsonen % 7,8k lortu dute. Bestalde, 65 urteko eta gehiagoko pertsonen % 29,3k bigarren hezkuntzako lehen etapako prestakuntza dute, eta % 37,6k lehen hezkuntzako prestakuntza. 16-34 urteko biztanleen kasuan, ehuneko horiek % 25,8 eta % 3,6 dira, hurrenez hurren.

## 3. GRAFIKOA

16 urteko eta gehiagoko biztanleria, lortutako prestakuntza-mailaren eta adin-taldearen arabera (%).2021. urtea




**Nazionalitatearen arabeko aldeak.** Atzerriko nazionalitatea duten biztanleek Espainiako nazionalitatea dutenek baino prestakuntza-maila txikiagoa dute. Horren erakusgarri, Espainiako nazionalitatea duten biztanleen % 40,0k lortu dute goi-mailako hezkuntza, eta ehuneko hori % 18,3ra baino ez da iristen atzerriko nazionalitatea duten biztanleen kasuan. Era berean, Espainiako nazionalitatea duten eta lanbide-orientazioko bigarren hezkuntzako bigarren etapa lortu duten biztanleen ehunekoa atzerriko nazionalitatea dutenena baino handiagoa da (% 11,1 eta % 6,3, hurrenez hurren).

Gainerako prestakuntza-mailetan, atzerriko nazionalitatea duten biztanleen ehunekoa handiagoa da. Zehazki, atzerriko nazionalitatea duten biztanleen % 41,1ek bigarren hezkuntzako lehen etapako prestakuntza dute, eta % 13,0k lehen hezkuntzako prestakuntza. Espainiako nazionalitatea dutenen kasuan, % 26,3 eta % 11,1 dira, hurrenez hurren.

#### 4. GRAFIKOA

16 urteko eta gehiagoko biztanleria, lortutako prestakuntza-mailaren eta nazionalitatearen arabera (%).2021. urtea



**Lurraldearen arabeko aldeak.** Lurralde-banaketa kontuan hartuta, aldeak ikus daitezke lortutako prestakuntza-mailan. Toki Administrazioari jarraikiz, *Ibarrak* izenekoak du goi-mailako hezkuntza duten biztanleen ehunekorik handiena Nafarroako eskualde eta azpieskualde guztien artean (% 44,4). Haren atzetik, *Iruñeko Metropolialdea* kokatu da (% 43,9). Bigarren hezkuntzako lehen etaparen, *Erriberagoiena* nabarmendu da, biztanleen % 39,3k baitute prestakuntza-maila hori. Haren atzetik, *Estellerriko Erribera* kokatu da, % 36,5eko ehunekoarekin.


Udalerriei dagokienez, 10 udalerritan goi-mailako hezkuntza duten biztanleen ehunekoa % 50,0tik gorakoa da. Udalerririk handiena Nafarroako Foru Komunitate osoan daude barreiatuta, eta ehunekorik handiena dutenak Aranguren, Eguesibar eta Cizur dira (% 60,5, % 60,1 eta % 59,0, hurrenez hurren).

Bigarren hezkuntzako lehen etaparen kasuan, hezkuntza-maila hori lortu dutenen ehunekorik handiena duten udalerririk Ablitas, Larraona eta Fustiñana dira (biztanleen % 54,1, % 53,7 eta % 50,4, hurrenez hurren).



### 5. GRAFIKOA

Lortutako prestakuntza-maila, eskualdearen eta azpieskualdearen arabera<sup>1</sup> (%).2021. urtea





<sup>1</sup> Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legearen araberako eskualdeak.



## 6. GRAFIKOA

Goi-mailako hezkuntza duten 15 urtetik gorako biztanleen ehunekoa.





## OHAR METODOLOGIKOA

Administrazio-iturriak erabiltzeak hezkuntzaren arloko gero eta informazio zehatzagoa edukitzea ahalbidetzen du. Informazio hori neurri handian eskatzen dute eragile ekonomiko eta sozialek, eta gero eta interes handiagoa dago informazio hori udal-mailan ezagutzeko.

Gaur egun, eta hiru hilean behin, Estatistikako Institutu Nazionalak landutako Biztanleria Aktiboaren Inkestaren emaitzak argitaratzen dira. Inkesta horrek biztanleriak lortutako hezkuntza-mailan sakontzen du, besteak beste. Hala ere, ezinezkoa da bide horren bidez geografia-desagregazio txikien (hala nola udalerrien) informazioa lortzea.

Estatistika- eta administrazio-erregistroetan oinarritutako informazioaren tratamenduari esker, udal-mailan data jakin batean lortutako prestakuntza-maila ustiatu eta zabaldu daiteke; horretarako, administrazio-erregistroak erabiltzen dira nagusiki. Zehazki, 2016ko urtarilaren 1eko errolda-fitxategitik abiatuta eta iturri osagarriak erabilia, pertsona bakoitzari hezkuntza-maila bat esleitzen zaio. Argitalpena 2016ko datuekin hasten da, azken Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Errolda egin eta bost urtera, informazio hori urtero argitaratzeko aurreikuspenarekin.

Esleitutako hezkuntza-mailarik ez duten edo hainbat balioaren artean zalantza dauden kasuetarako, probabilitate-egozpenetara jotzen da, eta behatutako banaketak erabiltzen dira, hainbat aldagai kontuan hartuta, hala nola adina edo nazionalitatea (nagusiki Biztanleria Aktiboaren Inkestatik lortuak).

Lortutako ikasketa-mailarik handiena edo lortutako prestakuntza-maila amaitutako mailarik handiena da, eta gainditutako eta balidatutako (normalean ziurtagiri baten bidez) mailarik handienetik abiatuta neurtzen da. Lortutako prestakuntza-maila zehazteko, ziurtagiri ofizialak hartzen dira kontuan, lortzeko modua edozein izanik ere.

Europar Batasunak 2014. urtetik aurrera 2011ko Hezkuntzaren Nazioarteko Sailkapena (HNSN-2011) erabiltzeko nahitaezko tasuna ezarri du erregelamendu bidez.

Lortutako ikasketa-mailen arabera sailkapenerako, CNED-A erabiltzen da, hots, CNED-2014ko hiru azpisailkapenetako bat. Azpisailkapen hori lortutako prestakuntza-mailetak programen, titulazioen eta ziurtagirien sailkapena jasotzen du, eta pertsonen prestakuntza-maila, gainditutako programak eta dagozkien ziurtagiriak deskribatzeko erabiltzen da.

Txostenean hezkuntza-mailetak erabiltzen den sailkapena honako hau da:

- **Analfabetoak eta lehen mailako ikasketak amaitu gabe dituztenak:**  
Bat dator CNED-2014ko lortutako prestakuntza-mailetak programen eta ziurtagirien sailkapeneko 01 eta 02 kodeekin.
- **Lehen hezkuntza:**  
Bat dator CNED-2014ko lortutako prestakuntza-mailetak programen eta ziurtagirien sailkapeneko 10 kodearekin.
- **Bigarren hezkuntzako lehen etapa eta antzekoa:**  
CNED-2014ko lortutako prestakuntza-mailetak programen eta ziurtagirien sailkapeneko 21-24 kodeak biltzen ditu.



- **Orientazio orokorreko bigarren hezkuntzako bigarren etapa:**  
Bat dator CNED-2014ko lortutako prestakuntza-mailetako programen eta ziurtagirien sailkapeneko 32 kodearekin.
- **Lanbide-orientazioko bigarren hezkuntzako bigarren etapa (goi-mailakoa ez den bigarren hezkuntzaren ondokoa barne):**  
CNED-2014ko lortutako prestakuntza-mailetako programen eta ziurtagirien sailkapeneko 33-35, 38 eta 41 kodeak biltzen ditu.
- **Goi-mailako hezkuntza:**  
CNED-2014ko lortutako prestakuntza-mailetako programen eta ziurtagirien sailkapeneko 51, 52, 61-63, 71-75 eta 81 kodeak biltzen ditu.

Gure webgunean, udal-mailako informazioa aurki daiteke, eta neurriko eskaerei erantzungo zaie, betiere estatistika-sekretuaren babesarekin bateragarriak badira.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Biztanleriaren prestakuntza-mailaren arabeko estatistika. 2021. urtea.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

[estadistica@navarra.es](mailto:estadistica@navarra.es)

848 42 34 00

